

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Zarraluqui kontseilariak banketxeak animatu ditu Nafarroako Gobernuaren hipoteka-bitartekotzarekin bat egin dezaten zerbitzuaren emaitza onak ikusita

*Banketxeek gaur izandako bilkuran, informazio-truke handiagoa izateko beharra azpimarratu dute etxegabetzeen benetako egoera zein den jakiteko*

Jueves, 18 de abril de 2013

Sustapen kontseilari Luis Zarraluqui Ortigosa Nafarroan dauden banketxe ezberdinetako ordezkariekin bildu da gaur goizean Nafarroako Artxiboan, eta Nafarroako Gobernuaren Bitartekotza Zerbitzua erabiltzera animatu ditu etxegabetxeak saihesteko formula gisa, eta Administrazioaren eta finantza-erakundearen arteko informazio-trukea bermatzeko, bai eta azken horien arteko lankidetzaren ere.



Kontseilariak finantza-arduradunekin izandako bilkuraren une bat.

Xede horrekin, kontseilariak bertaratutakoei zerbitzu horren osaketaren eta funtzioen berri eman die, bai eta abiatu zenetik zer jarduketa egin dituen berri ere. Sortu zenetik, iragan urrian, bitartekotzako 410 eskaera jaso ditu eta 197 espediente zabaldu, haietatik % 43 akordio batekin itxi dira jada.

Bestalde, Etxegabetzeen arloan Arreta Batzordearen sorreraz ere hitz egin die, buru den departamentu arteko organoa; zenbait jarduketa burutzen ari da arazo konplexu batean ekintza integral bat lortzeko eta arreta izan dezaketen ardatz asko dituen.

Bertaratutako entitateek haientzat bitartekotzako zerbitzu berri hori erabateko laguntza dela azpimarratu dute; izan ere, kasu gehienetan zordunarekin elkarrizketa errazagoa lortzen da, emaitza onak erdietsiz kentze-neurrira iristeko beharrik izan gabe.

Bestalde, finantza-erakunde bakoitzeko iparraldeko ordezkariak azpimarratu dute Nafarroan etxegabetzeak jasandako bezeroak gutxi direla; nolahi ere, izan daitezkeen irtenbideak beti pertsona bakoitzaren egoera ekonomikoari doitzeko nahia erakutsi dute, aldean artean akordioa bilatuz (berfinantzaketa, luzamendua, ordainean ematea...)

## **Aldeen arteko lankidetzak**

Ordezkarri guztiak arazo horrekin oso sentsibilizatuta agertu dira eta "egungo egoeran duten erantzukizuna" aitortu dute", nahiz eta aldarrikatzen duten ere erantzukizun hori "partekatu egin behar dela banketxeen, bezeroen eta beste erakunde batzuen artean". Azkenik, Administrazioarekin lan egiteko nahia adierazi dute arazo horri irtenbide bat aurkitzeko asmoz.

Kontseilariak nabarmendu du bilkura hori "lankidetzarako harreman estu baterako lehen urratsa dela" eta etorkizunean bilkura-klase horiek izaten jarraitzea espero duela informazioak eta esperientziak partekatzeko. Hori guztia, etorkizunean Nafarroako Gobernuaren eta gure lurraldean finkatuta dauden banketxeen arteko lankidetzak-hitzarmen bat sortzeko xedez kaltetutako pertsonen mesedetan.

Iragarri die ere, bihar Nafarroan hipotekak kaltetutako hainbat plataformako ordezkariekin bilduko dela egoeraren ikuspegi orokorra izateko.

## **Banketxeen jarduketak**

Bilkuran izandako 16 finantza-erakundeetako ordezkariak kontseilariari egiten dituzten jarduketak berri eman diote etxegabetzearen drama soziala saihestearren. Jarduketa horien barnean daude: berfinantzaketa, zorraren berregituratze bideragarria (ez ordaintzea onartzea hilabete batzuetan, hileko ordainketa edo interesa murriztea...), kita bat egitea, ordainean ematea edo hipoteka malgutzea kuota bezeroaren ordainketa-ahalmenari egokitzeko, besteak beste.

Bilkuran ondorengo banketxetako ordezkariak izan dira: Caixa (Banco de Valencia), Banco Popular (Popular+Vasconia+Pastor), Banco Sabadell, BBVA, Caja Rural, Bankia, Caja Laboral, Catalunya Caixa, Banco Santander (Banif+Banesto+Santander), Banco de Valencia, IberCaja, Caja España (+Caja Duero), Kutxabank (+BBK), Bankinter, Barclays eta Deutsche Bank.

Nafarroako Gobernutik izan direnen artean, Lurralde, Mugikortasun eta Garraiorako zuzendari nagusi José Antonio Marcén zegoen; Bitartekotza Zerbitzuko zuzendari César López Dios; Etxebizitza Zerbitzuko zuzendari Luis Antonio Ayesa eta Laguntza Juridikoko Zerbitzuko zuzendari Nekane Ágreda.

## **Jarduketako 400 eskaera baino gehiago sei hilabetetan**

2012ko urriaren 24an sortutako zerbitzu hori familia-unitateari berari zuzenean egotzi ezin daitezkeen arrazoiengatik bere ohiko etxebizitzan hipoteka ordaindu ezin duten Foru Komunitateko herritarrentzat da. Kontsumo eta Arbitrajeko Zerbitzuetik egiten da doakoa da.

Haren helburu nagusia finantza-erakundeen aurrean bitartekotza-lana egitea da ordaintzen ez den kasuetan kaltetuek duten zorraren likidazioan izan daitezkeen baldintza onenak bermatzeko.

Sortu zenetik 410 bat eskaera jaso dituela kalkulatu da eta 365 hitzordu eman direla. Guztira, 197 espediente zabaldu dira, eta haietatik akordio batekin 85 itxi dira (% 43), akordiorik gabe 15 izan dira (% 7,35) eta negoziatzen ari dira 97 kasutan (% 49,2).

Zerbitzu hau baliatu nahi duten herritarrek 848 426 900 eta 902 165 170 telefonoetara dei dezakete edo Nafarroako Gobernuaren kontsumitzailearen edozein informazio-bulegotara joan. Bulego horietan interesatutako pertsonen datuak hartuko dituzte hipotekaren bitartekotza-zerbitzuko langileek hitzordu bat eman dezaten dagokion prozedurari hasiera emateko.

## **Zerbitzuaren prozedura**

Hipotekaren bitartekotza-zerbitzuak familia-unitatearen egoera ekonomikoa aztertzen du eta zorra kitatzeko dauden aukerak proposatzen dira. Halaber, Kontsumo eta Arbitrajeko Zerbitzuko teknikariek pertsona horiei banketxeetara lagun diezaiekete bitartekotza-lana egiteko eta irtenbide zehatz eta egoki bat bilatzeko: hipoteka-kreditua birfinantzatzea, ordainean ematea, izan daitezkeen zorraren kita, edo alokairuaren aukera.

Zerbitzuak ere, prebentzioko izaeraz, hipoteka-kontratuei eta herritarrek nahi dituzten beste alderdi juridiko batzuei buruzko aholkularitzak eskaintzen ditu.